

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Leioako Udala****Leioako Udaleko Alkatetzara bertaratutako Kontratazio Mahaiko kideen izendapena aldatzea.**

Alkateak, azaroaren 17ko 2021004134 Dekretuaren bidez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa: Izendatzea Kontratazio Mahaiko kideak, Alkatetzari laguntza iraunkorra eman beharko diotenak haren eskumeneko kontratazio espedienteetan:

— Presidentea:

- Titularra: 3. alkateordea.
- Ordezkoa: 1. alkateordea.

— Kideak:

- Titularra: idazkari nagusia (LPZ 1001/1 kod.).
- Ordezkoa: idazkariordea (LPZ 1002/2 kod.).
- Titularra: udaleko kontu-hartzailea (LPZ 2001/17 kod.).
- Ordezkoa: zerbitzu ekonomikoetako teknikaria (LPZ 2002/SN kod.).
- Titularra: RRHH eta kontratazio ABT (LPZ 4001/21 kod.).
- Ordezkoa: RRHH eta kontratazio teknikaria (LPZ 4002/SN kod.).

— Idazkaria:

- Titularra: kontratazio arloko administraria (LPZ 4102/00 kod.).
- Ordezkoa: RRHH eta kontratazio ABT (LPZ 4001/21 kod.).

Karguarekin edo lanpostuarekin identifikatutako Kontratazio Mahai iraunkorreko kideak, bat etorriko dira unean horien titular diren pertsonekin.

Kontratazio Mahaiaren berrikuntzarako lehia- zein elkarte-elkarrizketako prozeduretan, Kontratazio Mahaiak aurretiaz adierazi bezala eratuta egongo da; horrez gain, berrikuntzarako lehia edo elkartzea eragingo duen gaian bereziki kualifikatutako pertsonen hartuko dute parte. Hori guztia SPKLren 327. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Bigarrena: Ebazpen honen edukia argitaratzea Leioako Udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Leioan, 2021eko azaroaren 18an.— Alkatea, Iban Rodríguez Etxebarria